# 2025-2026 URTEKO NFORMAZIO OROKORRA

## IRUÑEKO UDALEKO ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO LIGA

2025-2026eko Eskolako Areto-Futboleko Liga Iruñeko Udaleko kirol programa bat da. Programa honen bidez 8 eta 11 urte bitarteko haurren artean Areto-Futboleko Liga bat garatzen da. Denboraldi honetan Ligaren hogeita hamabigarren edizioa izango da.

2024-2025 denboraldian osotara 1.266 kirolarik parte hartu zuten, 115 taldeetan banatuta. Horietatik 104 talde gizonezkoak izan ziren (1.174 jokalari) eta 11 talde emakumezkoak (92 jokalari).

Kirol jarduera hau , funtsean dibertimenduzkoa da, eta ez selektiboa, Iruñean garatzen da urritik maiatzera bitartean eta bertan, besteak beste, ikastetxeetako, ikastoletako, elkarteetako eta kirol-klubetako taldeek parte hartu dezakete. Partida gehienak larunbatetan garatzen dira, eskola-egutegiari jarraituz, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko.

LEskolako Areto-Futboleko Udal Ligak honako ezaugarriak ditu:

- Parte-hartzearen sustapena: honetarako nahitaezkoa da partidara joaten diren haur guztiek gutxienez denbora oso eta jarraitu bat jokatzea (10 edo 12 minutu). Araudiak aurten aukera ematen du entrenatzaileak behar dituen aldaketa guztiak azken laurdenean egiteko haurrek minutu gehiago jolastu ahal izan dezaten.
- Tituluak lortzeko edozein kanporaketaren desagertzea: Eskolako Areto Futboleko Udal Ligaren amaieran, jokalari guztiek garaikur bera jasoko dutesailkapena edota emaitzak edozein direla ere.
- Partiden benetako emaitzen ezabatzea. Idatziko da 1-0 irabazi duen taldearen alde edo 1-1 berdinketa gertatzen bada.
- Parte hartzeko ez da federatu beharrik izango eta hau ez da sustatuko Ligaren kudeaketarekin lotutako inolako bitartekoren bidez. Era berean Ligan partadeitza Nagusia Iruñean erroldatutako pertsonena izango da.

**Denboraldiaren helburuak**

- Multikirola sustatzeko zeharkako estrategia:
  - ➔ Kirol anitzeko praktikaren onurei buruzko kontzientziazioa.
  - ➔ Parte-hartzaileen adina eta mailara egokitutako Multikirol eskaitzaren zabaltzea, ate irekien jardunaldiak, probatzeko saioak…
  - ➔ Irakasteko materialaren zabalkundea egitea, oinarrizko mugimen-trebetasun anitzen ikaskuntza areagotuko duen metodologia barne hartuta, hainbat kiroletako entrenamenduen ariketa eta errutinen bidez.
  - ➔ Nafarroako Kirol Jokoetako Multikirol Jardunaldiei buruzko informazioa (Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua)
  - ➔ Multikirol azken jardunaldia Udal Areto Futboleko Ligaren amaierako ekitaldian "La
- "Puerta de Atrás-Atzeko Atea" izeneko Kirol-bideraketa sustatzeko zeharkako estrategia
  - ➔ Kirola uzteari buruz familiei arreta emateko zerbitzua.

- ➔ Beste kirol eskaintza batzuk uzten dituzten adingabeen familientzako harrera zerbitzua, Ligako taldeetan errazago sar daitezen.
- Kirol-balioak sustatzeko zeharkako estrategia
  - ➔ Familien eta kirolarien artean lortu nahi diren balioen inguruko kontzientziazioa.
  - ➔ Kiroltasuna sailkatzeko sistema bat sartzen da Ligan, sailkapen orokorrean garrantzia duen:

### Puntuazioa ematen duten Kirol-emaitzen taula

| Kirol emaitzak | Puntak | Puntuazio mota |
|---|---|---|
| Etxeko taldea 1-Kanpoko taldea 0<br>Etxeko taldea 0-Kanpoko taldea 1 | 2 | Astekoa |
| Etxeko taldea 1-Kanpoko taldea 1 | 1 | Astekoa |

### Tabla de Valores deportivos que asignan puntuación

| Valores deportivos | Puntuak | Puntuazio mota |
|---|---|---|
| **Talde mistoa**: emakumezko eta gizonezkoen partaidetza dutenak | 6 | Urtekoa |
| **Talde inklusiboa**: desgaitasunen bat duten pertsonak dituzten taldeak | 6 | Urtekoa |
| **Heziketa ekintzak:** Aurtengo denboraldian zehar taldeari lotutako edozein pertsonak (ordezkari, entrenatzaile, jokozain), antolatzaileek proposatutako edo Nafarroako Kirol eta Jarduera Fisikoaren Institutuak (NKJFI) antolatutako kirol balioei buruzko heziketa ekintza bat egin duen pertsona bakoitzeko | 6 | Urtekoa |
| **Aldizkako Kiroltasun keinuak:** Taldeko edozein kideek egindako aldizkako kiroltasun keinua; dokumentu bat aurkeztu beharko da non keinua azaldu behar den. | 6 | Urtekoa |
| **Partidetan kirol balioen betetzea:**<br>Partidaren jokozainak akta bete beharko du eta adierazi beharko du zein kirol balio bete diren eta zein ez, eta horien arabera puntu batzuk egokituko dira ezo ez.<br>➔ Kirol balio guztiak bete dira: 2 Puntu<br>➔ 4 kirol balio bete dira: Puntu 1<br>**<u>Partida bakoitzean puntuak ematen dituzten kirol-balioak:</u>**<br>➔ Lagunarteko agurra partidaren hasieran eta amaieran.<br>➔ Entrenatzaileak jokozainaren erabakiak errespetuz onartu ditu.<br>➔ Publikoa errespetuz jokatu du aurkako taldearekin.<br>➔ Jokalariak jokozaina errespetatu dute.<br>➔ Arbitrajeak araudia bete du.<br>➔ Taldearen puntualtasuna. | 2<br>1 | Astekoa |

| | | |
|---|---|---|
| **Taldeko jokalarien parte hartzea webguneko/Multikirola/ Doako saioak Klubetan eta Federazioetan** (**https://ligafutbolmunicipalpamplona.es/sesiones-de-prueba-gratis-en-clubes-y-federaciones/**) | | |
| ➔ Taldekide guztiek gutxienez doako saio batean parte hartzea lauhileko bakoitzean | 4 | Lauhilekoa |
| ➔ Taldekide erdiek gutxienez doako saio batean parte hartzea lauhileko bakoitzean | 3 | |
| ➔ Taldeko jokalari batek edo bik gutxienez doako saio batean parte hartzea lauhileko bakoitzea | 1 | |

Denboraldiko helburuez gain, honako helburuak lortzeko ekintzak egiten jarraituko dugu:

- Desgaitasunen bat duten pertsonak integratzea eta beraien parte-hartze handiagoa, beti ere mugimen-trebetasun nahikoa eta areto-futboleko kirolaren eskakizunekin bat datorrena, eta horretarako Ligatik behar diren erakartze, atxikitze eta esku-hartze hezitzaileko ekintzak egingo dira.
- Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligan emakumeen parte-hartzea sustatzeko sare sozialetan kanpaina egingo da.
- Diziplina eta zehapen Araudia zabaltzea, berdintasuna eta hezkidetza sustatzeko, eta sexuagatiko edo desgaitasunagatiko jazarpen-egoerei aurrea hartzeko (Web orrian argitaratua)

https://www.pamplona.es/temas/deporte/deporte-escolar-y-juvenil
https://www.ligafutbolmunicipalpamplona.es

- Indarkeria-kasuetan jarduteko protokolo zabaltzea eta laguntza eskatzeko inprimakia (Web orrian argitaratua).

https://www.pamplona.es/temas/deporte/deporte-escolar-y-juvenil
https://www.ligafutbolmunicipalpamplona.es

- Marketin-estrategiak erabiltzea Ligan berdintasuna eta hezkidetza hala nola desgaitasunen bat duten pertsonen parte-hartzea sustatzeko.
- *App*-aren zabaltzea taldeen eta antolakuntzaren arteko komunikazioa errazteko.




**Gesport Gestión Deportiva S.L.**
Plaza Eguzki, Nº 13 Bajo 31192 Mutilva Alta (Navarra)
Tfno: 948 153106/ 650038061/670612871 coordinacion@ligafutbolmunicipalpamplona.es

Android-entzako Ligaren aplikazioa deskargatzeko gunea
https://play.google.com/store/apps/details?id=com.thenewads.gesport

Iphone-ntzako Ligaren aplikazioa deskargatzeko gunea
https://apps.apple.com/es/app/gesport/id1488301268

**Nork hartu dezake parte?**

Eskola Areto-Futboleko Udal Ligan gutxienez 5 jokalari dituen edozein taldek har dezake parte.

**Zer egin behar da parte hartzeko?**

Areto-Futboleko Udal Ligako izen-ematea https://www.ligafutbolmunicipalpamplona.es web orriaren bidez egin behar da.

Izena emateko epea irailaren 19tik urriaren 6ra arte izango da.

**Izena emateko behar den dokumentazioa**

- Izena-emateko fitxa bete on line
- Adingabeentzako DBLOA baimena erantsi
- Ordainketa on line egin edo egindako transferentziaren ordainagiria erantsi

**Egutegien ematea**
Egutegia Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligan parte hartzeko beharrezkoa den informazioarekin batera, web orrian jarriko da urriaren 15etik 16ra bitarte.

**Izen-ematearen prezioa**

75€ talde bakoitzeko

**Asegurua**

LEskolako Areto-Futboleko Udal Ligan parte hartzen dutenek, aldez aurretik aseguru-etxeak ezarrita zenbateko ordainduta (6,17 €), Erantzunkizun Zibileko aseguruei eta izena-emateko kuotaren barruan sartzen den banakako istripu-aseguruari erantsitako istripu-aseguru bat estaltzeko aukera izango dute.

Ligan parte hartzeko lehenespenez dauden istripu-aseguruez gain ez da nahitaezkoa izango, inolaz ere, istripu-aseguru gehigarririk sinatzea. Huatazko aseguruen estalduraren baldintzak aldez aurretik jakinaraziko zaizkie interesdunei.

**Lehiaketaren hasiera**

Lehiaketaren hasiera 2025eko urriaren 18an izatea aurreikusten da.

## Informazio gehiago

Maite Bienzobas: 670 612871
Gesport Gestión deportiva S.L.: 948153106

coordinacion@ligafutbolmunicipalpamplona.es

## Ez duzu ezer galdu nahi?

Ligan gertatzen den guztiaren berri izan nahi baduzu, batu informazio kanaletara.

**WhatsApp-eko kanala:** Liga Municipal Fútbol Sala Escolar-Ayuntamiento de Pamplona
https://www.whatsapp.com/channel/0029Vawq61I0wajtgSNv0e1f

**Facebook-eko profil nagusia:**
https://www.facebook.com/LigaMunicipalFutbolSalaPamplona/

**Instagram-eko profil nagusia:**
https://www.instagram.com/ligamunicipalfutbolsalairuna/

**Informazio gehiago:**

https://www.pamplona.es/temas/deporte

www.ligafutbolmunicipalpamplona.es